

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Xerafina Iriarte Arostegi

*Donostia,
Gipuzkoa
(1932-2019)*

Aurkibidea



Biografia



Donostian jaio arren, txikia zela Irurara joan zen izebarenera, Larriturri baserrira. 13 urterekin Donostiara itzuli zen izeba baten etxera eta neskame gisa egon zen bertan. Uda batean Zarautzen ere egon zen zerbitzari lanetan. 17 urte ingururekin Tuterara joan zen lanera bi urterako amaetxe ("maternidad") batera. Tolosako etxe aberats batean neskame lanetan zegoela ezagutu zuen bere senarra izango zena, eta ezkondu ostean Tolosan jarri ziren bizitzen. Tolosako paper lantegian ere ibili zen lanean. Hiru seme-alaba izan zituzten. Umeak txikiak zirela Donostiara joan ziren bizitzera, senarraren lanarengatik. Berehala Amaia eta Principal zinema aretoetan lanean hasi zen, eta bertan lan egin zuen erretiroa hartu arte. Emakume bizia, hainbat elkarte eta taldetan parte hartzen du oraindik ere (Mintzalaguna, Kantu jira...).

Zintak

DON-004

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-07-09
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV

DON-005

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-07-09
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV

DON-119

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2010-05-28
- **Iraupena**: 70 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k)**: Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. "Ume eder bat" abestia

- **Erref**: DON-119/003
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:02:03. **Bukatu**: 00:03:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:

<p>"Ume eder bat" abestiaren zati bat kantatzen du.</p>

Transkripzioa

Ume eder bat ikusi nuen
Donostiako kalia,
hitz erditxo bat hari esan gabe,
nola pasatu parian?
Hitz erditxo bat hari esan gabe,
nola pasatu parian?
Hitz erditxo bat hari esan gabe,
nola pasatu parian?

Galai gazteak galdetzen dute:
"aingeru hori nun dago?"
Nere maitia ez det esango
hori nun dagon.

- Gehio ez dakit. Hortako euki behar det, zera, liburua. Eta liburuakin itsusi ematen du, ezta? Grabatzeko. Eske badakizu ze pasatzen dan?
- Hori noiz ikasitakoa, hori aspaldikoa?
- Hori bai aspaldikoa , baiño kantatzen degu Donostin kantu jiran e! Eta ensaiotan ere bai. Baiño gere kulp da, beti liburuakin eta gero liburua itxi eta "se olvidó".

2. Ume kantak: "Haurtxo polita" eta beste

- **Erref**: DON-119/005
- **Iraupena**: 0:03:19. **Hasi**: 00:03:27. **Bukatu**: 00:06:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:

<p>Bere amak kantatzen zizkion lau abesti kantatzen ditu. "Txakurtxua",

"abarketak urratuta"... Batean bizpahiru nahasten ditu, "Olentzero" tartean sartuta. "Haurtxo polita".</p>

3. "Haurtxo maite" abestia

- **Erref:** DON-119/007
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:06:59. **Bukatu:** 00:08:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:

<p>"Haurtxo maite" abestia kantatzen du.</p>

Transkripzioa

Haurtxo maite,
lotan zaude,
sehaskan negarrez.
atoz, bai, nere bihotzean.
hator, bai, nere bihotzean.
Abesti maitale.
Abesti maitale.

Haurtxo maite,
nola zaude?
sehaskan negarrez.
hator, bai, nere bihotzean.
hator, bai, lo-lo egitera
Abesti maitale.
Abesti maitale.

4. "Hiru errege" abestia

- **Erref:** DON-119/011
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:09:12. **Bukatu:** 00:10:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak

Laburpena:

<p>"Hiru errege" gabon giroko abestia kantatzen du.</p>

Transkripzioa

- Hori txikiak giñanekoa:

Hiru errege datoz
mendian barrena,
mozkor-mozkor egiñik
Bretxaren barrena.
Meltxorrek heltzen dio
Gaxparri besotik
ez muturrez aurrera

ez deitzen erori. (bis)

Joxepe, ekarri zazu
sortatxo bat egur,
haurra hoztutzen dago ta
berotu dezagun.
Ez da ez hotzak hilko
birjiña Maria,
aldamenian dauzka
astua ta idiya. (bis)

5. "Abenduko 24an" abestia

- **Erref:** DON-119/012
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:10:16. **Bukatu:** 00:11:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak

Laburpena:

<p>Gabonetako kanta: "Abenduko hilaren 24an" abestia.</p>

Transkripzioa

- Eta "Abenduko hillaren 24ian"?
- A! Bai.

Abenduko hillaren hogeita lauian
Jesus gure jaio da estalpe batian
[hura] ipintzeagatik izarrez gaubian
bihotza zuzenduta
zerura bidian.
Gu ipintzeagatik izarrez gaubian
bihotza zuzenduta
zerura bidian.

Hogeita laugarrena degu abenduban
Jesus gure jaio da estalpe batian
[hura] ipintzeagatik izarrez gaubian
bihotza zuzenduta
zerura bidian.

6. "Arre-arre Mandako" abestia

- **Erref:** DON-119/014
- **Iraupena:** 0:00:22. **Hasi:** 00:11:54. **Bukatu:** 00:12:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:

<p>"Arre-arre Mandako" abestia.</p>

Transkripzioa

- "Arre-arre mandako"?
- Arre-arre mandako,
bihar Tolosarako
etzi Panplonarako,
handik zer ekarriko?
Zapatak ta gerriko.
Altza, altza, Periko!

Oain gogoatuazi diazu! Igual hogeia... Ze! Dazkaan urte guztitan igual ez det behin ere esan ta!

7. `Herriko festak´ abestia

- **Erref:** DON-119/016
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:12:46. **Bukatu:** 00:15:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>`Herriko festak´ abestia kantatzen du, eta azalpenak ematen ditu horri buruz.</p>

8. "San Juanetako zortzikoa"

- **Erref:** DON-119/018
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:16:00. **Bukatu:** 00:18:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>San Juanetako "zortzikoa", Tolosakoa, kantatzen du. Santa Maria aurrean egiten zuten sua, eta salto egiten zuten.</p>

9. Hortza erortzean, saguari eman

- **Erref:** DON-119/020
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:19:42. **Bukatu:** 00:20:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Hortza erortzean zer egiten zen. "Arratoi txikia. Tori zaharra eta ekarri berria".</p>

Transkripzioa

-Erortzen zanian hortz bat-edo, esaten zan zerbait?

-Bai, sagua. "Amatxo hortza erori zait." "Ah, ba orain jarriko deu txanpon batekin, txanpon batekin burkuan azpin, almuhadan azpin." Euskeraz guk burkua esaten diogu. "Burkuan azpin jarriko deu eta hurrungo egunian arratoitxo txikiyak ekarriko dizu hortza berriya, baiño esan behar dezu: 'arratoi txikiya, tori zaharra ta ekarri berriya.'" Zuek hala esaten dezue?

-Ez, guk ez.

-Bai. Arratoi txikiya, o xagua. "Xagua, xagutxua, nere hortza hemen jartzen dizut eta txanpona ´re bai, ta tori zaharra ta ekarri berriya, arratoi txikia."

10. Zotina, eztula eta San Blas

- **Erref:** DON-119/022
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:20:33. **Bukatu:** 00:21:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Zotina eta eztula etortzen zenean, "Jesukristo San Blas". Doministiku egitean ere bai.

11. Euria egiteko errogatibak

- **Erref:** DON-119/024
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:21:18. **Bukatu:** 00:24:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Ate gainean Ama Birjina edo Jesusen Bihotza. Egurrezko gurutzeak, Santa Kruz egunean jartzeko. Errogatibak elizatik ermitara. Txutxurruendi. Letaniak. Txurbeltzaren adarrekin egiten ziren gurutzeak, soro mugetan jartzeko.

12. Arrosarioa, gauero

- **Erref:** DON-119/025
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:24:42. **Bukatu:** 00:25:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

<p>Arrosarioa, gauero-gauero. Afaldu eta hankak garbitu, txandaka. Urik ez etxean; pertzarekin bila.</p>

13. Zapata pare bat urte guztirako

- **Erref:** DON-119/027
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:25:53. **Bukatu:** 00:29:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>"Suia" zer zen. Ur bila joaten ziren harekin. Hankak garbitzeko, pertza. Hanka hutsik ibiltzen ziren. Zapata pare bat urte guztirako. Iruran bizi zenean. Galtzerdiak koltxoi azpian gordeta. Amona nola janzten zen.</p>

Transkripzioa

-Bai, hori, holakua zer zan?

-Holakua zan pertza, baiño deitzen zitzaion 'sulla'. Zeatikan zan hemendikan estuba, ta goien zabala, ta eukitzen zun tapa, ta izaten zan hojalatakua o de zink, izaten zan ordun, eta haiekin, halako bi ontzi o bazeuden baserrin, ta juten giñen uda billa. Ta hartzen giñuzen iturrin uda, eta etxea juteko udik gabe allatzen giñen. Ta: "hau ekarri al dezue? Ez dakau eltzia jartzeko udikan."

-Orduan hankak garbitu-ta danak ur berarekin?

-Ontzi batian, pertza batian. Bai bai bai. Jaboiyik gabe eh, udakin bakarrik. Bueno lokatzetan ta atarin ta ibiltzen giñan. Ez zeon grasaik eta holako zikinkerik ez zeon. Lokatza, basarrin lokatza. Lokatza ta: "ama arantza hemen arantza daukat", behatzian o, hankazpin o... Eta gero, ba...

-Zapata gabe ibiltzen ziñaten, ala?

-Zapata garbia?

-Zapata gabe?

-Ah bai bai, askotan hankutsik gehiago zapatakin baiño, jesus maria! Askotan gaiñea, eta gaiñea ordun zapata pare bat, hua urte guztiako, eta ez zeukan hausteko baimenikan, zeatikan hausten bazian ya hurrungo txekorra o behia o saldu arte, han ez zeon zapatikan, oseake...

-Hori, esaten ai zeana zer, Zizurkillen, ala?

-Ez, Iruran, Iruran bai. Behatza kanpuan, baiño hala zan bizimodua ta! Eta gero, geo galtzerdik, ordun galtzetiñak, udaran galtzetiñak, eta neguan ba belauneaiñoko galtzerdi luziak, eta pare bat, pare bat udaran ta pare bat neguan. Eta iten gendun garbitu, eta lehengusuak-eta ez hartzeko ba koltxoian azpin gordetzen giñuzen, igandeako. Gustatzen zitzaigun txukun ibiltzia, ezaura gendunian eh, neska koskorak giñenian, auskalo nola jungo giñen! Baiño ez, nik uste txukun ibiliko giñela, danai gustatzen zaien txukun ibiltzia, eta amona´re bere mototsakin ta, gona bueluakin ta...

-Amonak zapirik ibiltzen zun, amonak?

-Bai bai. Buruko paiñoluakin.

-Ze kolore, beltza?

-Ez, beltza o grix antzea o ibiltzen zun bai. Txuria ez. Beti nabarra koloria o izaten zan ordun. Holako estilokua baiño gris antzea. Bai. Ta bea alta zan, oso emakume guapa zan amona, bai, gukin pasatzen zittun kristonak. Iten giñuzen sekulako aberik. Asko giñen ta!

14. Lotarako otoitzak, umetan

- **Erref:** DON-119/029
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:29:12. **Bukatu:** 00:30:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Lotarako otoitzak, umetakoak. "Jesus Jose Maria".</p>

Transkripzioa

-Afaldu baiño lehenago errosaiyua. Eta gero errosaiyua bukatu ta afaltzea. Eta behin afaldu ezkeo, hankak garbittu ta ohiyua.

-Eta ohiyan, lo in aurretik hola...

-Errezatu? Igual lo hartuko gendun, ez giñen goatu're ingo, ez naiz goatzen. Bueno txikiak, ordun ni're txikia nitzan ordun artian baiño: "Txikiak ba aber, errezatu eh, ta txintxua izan eh, eta aber nola esaten dan?" ta, esaten gendun: "Jesus, Jose, María, Santa Ana, ta San Joaquin, zu're bai, gurekin, eta bostak alkarrekin". Esaten gendun, eta: "aber ze gehiyo?" ta: "ondo lo in ta bihyar arte, paaaa!". Hori gauero. Hori gauero Ama Berjiñai. Bueno, ohitura politak ziran.

15. Ogia eta taloak egiten

- **Erref:** DON-119/032
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:31:20. **Bukatu:** 00:35:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Irurako baserrria nolakoa zen: ekonomika zuten, labea. "Ormarian", arto hirina. Taloak nola egiten zituzten. Gose garaia. Sobratzen ziren taloak esnearekin. Garoa biltzen, lerarekin. Hankak urratuta.

16. Iruratik Donostiara, izebarenera

- **Erref:** DON-119/033
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:35:14. **Bukatu:** 00:36:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Baserriko lanekin nekatuta, Donostiako izebari idatzi zion, hara joan nahi zuela esanez. Harategia jartzean eramango zuela esan zion, eta hala izan zen. Eskolara ez zen joan ia. Hiru seme-alaba izan zituen.

17. Gosez ez, baina beti hotzez

- **Erref:** DON-119/035
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:36:51. **Bukatu:** 00:39:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

<p>Gorriak ikusi zituen, baina beti janda joaten zen ohera. Hotzarekin gaizki pasatzen zuen. Negu gogorrak ziren. Mantala garbitu, eta izoztuta. Tolosara ogi bila. Umeei kontu egiten.</p>

Transkripzioa

-Lehen esaten zuen bezela, ta oain e bai: "gorrik eta beltzak ikusitako umia." Baiño gauz bat ona bai, jan gabe behin ere ez ohiyea, beti afalduta. O talo ta esnia, o batxuri zopa o, beti janda, baiño neguan hotzak...

hotza... hanka guztik suminduta, baiño miñakin hotzangatikan eh, ezin gozatuikan, eta hurrungo goizian jaiki ta berriz'e hankutsik! Oseake... ta nik esaten det, ni gogorra, a la fuerza... beharrak inda nago hola, bestela ez da posible! Baiño jo, negu gogorrak zian eh, aurtan gogorrak in dittu baiño, ordun gogorrak zian! Teillatutikan beheraiño burrunziak, holako loriak eh, eta bezperan manttala garbitu, manttal bat gendukan, garbitu gauian, eta ganbaran zabaldu, hurrungo eunian billa jun ta, hau bezela, lehor-lehorra ta goor gogorra, izotzakin. Eta hua ez dakit nola jantziko gendun, jun bihar izaten gendun Tolosara ogi billa. Eta esaten ziun: "Ez jan eh! Ez hasi ogiya, osoik ekarri." Ogi koxkorra jan gabe.

-Zailla izango zan hori.

-Bueno ba, etorriko giñan, bestela auskalo, errosaiyua errezzatzeko igual hola jarriko giñun.

-Ah bai? Zigortuta?

-Ez, ez, jo hola ez. Ez daukat imajiñan holako tratu txarrik ez. Tratu txarrik ez daukat, ez.

-Baiña zigortuta jan gabe ero, bueno belauniko ero...

-Ez, igual atarin jolasea ateatzen giñen ta, benga, artua aletzea. O baburruna aletzea. Hori bai. O umia nearrez balin bazeon umiai kontu ittea, eta sihaska hola zan ibiltzen zana, holakua bakizu holakua zan, hola, ta lo iteko hola: 'din, dan, din dan, din, dan', ta harek ez zun umia lo itten. "Lo in!". Eta ni bakarrik ez eh, nere lehengusuak eta danak bai, kriston buelta eman ta, umia a hacer puñetas!

-Ah bai? Gaixua...

-Baiño, sihaska're bajua zan ta, geo umez beteta inguruan, oseake... Hori normala da, ez? Ume koxkorra daon tokian...

18. Lehengusua jaio zenekoa

- **Erref:** DON-119/037
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:39:55. **Bukatu:** 00:41:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Ana Mari lehengusua jaio zenekoa. Santa Ana eguna zen. Iruratik Villabonara joan ziren Gabriela emaginaren bila. Aitak mutila nahi zuen, baina laugarrena ere neska etorri!

Transkripzioa

Santa Ana eguna zan, Santa ana eguna, in zun berua, ez dizut batere gezurrik esaten e? Gutxiñez berrogeita bost gradu, izugarrizko berua. Eta jarri zan haurra izateko ama eta...Nere ama ez e?

- Izeba?

- Bai, eta jarri zan eta eguadiko ordu bik o hola zian, ta garai hartan jotzen zun eguzkiya. Baiño jun behar zan Iruratik Billabonara komadrona billa. Emakume guapa zan, ille zuriakin, ta este, Grabiela izena zun, oso guapa. Oaindikan beran illobakin ta hemen Donostin hitz eiten det. Eta haren billa jun behar zan, karretera guztiyan hiru kilometro Iruratikan Billabonara, zegon beruakin, Santa Ana egunian, eta hankak eta dana erretzen zian. Nik uste arrautza jarri prejitzeke eta danak "txi txi txi txi txi" prejituko zian. Bueno ba, jun giñen, bean izeba jun zan, eta etorri zan komadronakin, Grabiela; eta etorri zan, ba handikan ordu erdi batera edo neska txikia jaio zan. Eta ziran hiru neska ta laugarrena ba aita zegon pentsatzen mutilla etorriko zala; baiño neska etorri, eta neska etorri zan, eta aita esaten zuen, gu ez giñan igual konturatu're ingo, baiño hillabete osuan ta gehiyo andria ikusi gabe, kasketan, neska txikia etorri zalako berriz.

19. 'Pernando amezketarra'ren istorioak

- **Erref:** DON-119/040
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:44:38. **Bukatu:** 00:48:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

<p>Pernando amezketarraren kontuak kontatzen zizkieten umetan. Pasadizo bat kontatzen du, debalde jateko zer egin zuen behin Pernandok.</p>

20. Bertso gisakoak: erdia erdaraz erdia euskaraz

- **Erref:** DON-119/043
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:50:59. **Bukatu:** 00:53:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Arto hostoak biltzera joaten zirenean kantatzen zituzten bertso gisakoak, erdia gaztelaniaz eta erdia euskaraz.</p>

Transkripzioa

-Artuan hostua biltzera juten giñenian, arto saillera, iñoiz behin ba igual amak o izebak o hitz eiten ta, esaten zuen, aber ondo esaten dizuen:

“Artua poco poco calabaza jaki,
gu nola bizi geran Jangoikuak daki.”

Eta geo bestia, bestia esaten zuen:

“Neska-mutillak, neska-mutillak se reunieron,
mirando a Jainkuari,
errezatzen diote emateko
zoriona biori.”

Eta geo bestia:

“Una chica y un chico estaban entre maíces,
rezando oraciones gure Jainkuari.”

Eta gero, oain ez naiz goatzen baiño bai, gaztetan, ta gero bestia:

“Si supiera ella hablar, gure jarro motxa,
no creo que estaría esateko lotsa.
La mujer le decía senarragatikan:
'no le puedo sacarle ardotegitikan'”.

-Hoiek noiz kantatzen ziran?

-Neska koskorak, garaiyetako're ikasitakuak. Eta bestia:

“Que te parece chica begiko pestaña?
Parece que no luces igandian haiña,
mira que eres tonta y [...],
todavía no te has dado cuenta que estas hecha una lotsagarriya.”

Disparatiak!

-Euskeraz ta erderaz?

-Bai, nahastuta, nahastuta bai:

“Donde has dejado Joxepa
pintura gorriya?
Mira que eres tonta,
[...].”

Eta geo bestia:

“Mutil zahar malioso
diabluz betia,
ez diat irikiko
gehiyago atia!
Que te parece que hoy tengo
mi hija zuri ematia?

Ni te hagaš ilusiones
nere neskatilla."

Disparatiak!

21. San Isidro egunean, hegazia

- **Erref:** DON-119/045
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:54:31. **Bukatu:** 00:56:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

San Isidro egunean mezara joan, eta gero etxean hegazia hiltzen zuten. Arroz-esnea eta morokila. Arrautzak saldu egiten zituzten, bueltan ardo goxoa ekartzeko. Katuaren mingaina. Tolosara joaten ziren plazara.

22. Lepasaskia eta burusaskia

- **Erref:** DON-119/047
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:57:04. **Bukatu:** 00:58:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Trolebusean joaten ziren Tolosara, plazara. Saskiak eta "burukoteak". Saski motak. Lepasaskia eta burusaskia.

23. Sorginak, komeni zenean bakarrik

- **Erref:** DON-119/049
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:58:30. **Bukatu:** 01:01:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Purgatorioko arima erratuak. Arrosarioa errezatuz artua aletzen zuten eta babarruna lekatu. Ganbaran argirik ez zegoen. Ur bila joaten ziren batzuetan edo erre kara iluntzean. Sorginak, komeni zenean bakarrik zeuden.

24. Ipuina: Aralarko herensugea

- **Erref:** DON-119/051
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 01:01:46. **Bukatu:** 01:05:19

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Aralarko San Migelekin lotutako ipuina. Herensugea eta Teodoxioren penitentzia, katea hankatik zintzilik. Amonak kontaktzen zizkien ipuinak.

25. Kinkeak, lanparilak eta farolak

- **Erref:** DON-119/052
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 01:05:19. **Bukatu:** 01:07:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>Argi gabe geratzen ziren sarri. Kinkea, olioarekin. Arima erratuentzat katilu batean ura jartzen zuten, eta olioak kortxozko lanparilekin. Farolak.</p>

26. `Txoria txori´ abestia

- **Erref:** DON-119/054
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 01:08:01. **Bukatu:** 01:09:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>`Txoria txori´ abestia kantatzen du.</p>

Transkripzioa

Hegoak ebaki banizkion
neria izango zen,
ez zuen alde egingo.
Hegoak ebaki banizkion
neria izango zen,
ez zuen alde egingo.
Baiñan horrela
ez zen gehiago txoria izango,
baiñan horrela
ez zen gehiago txoria izango,
eta nik
txoria nuen maite,
eta nik
txoria nuen maite.

Larala laralala lala lala
laralara lala lala lala
larala laralala lala lala
laralara lala lala.

Baiñan horrela
ez zen gehiago txoria izango,
baiñan horrela
ez zen gehiago txoria izango,
eta nik
txoria nuen maite,
eta nik
txoria nuen maite.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com